

## **EIBARKO UDALAREN EUSKARA AHOLKU BATZORDEA**

### **Sarrera**

Eibarko Udalak udalerrian, Eusko Jaurlaritzaren eskariz, 2002ko ekainaren 4an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) prestatu eta garatzea onartu zuen Eusko Jaurlaritza, HABE eta Foru Aldundiko ordezkariekin batera.

Planaren helburu nagusia euskaraz bizi nahi duten herritarrei, horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea da, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortu asmoz, euskararen aldeko urratsak areagotzeko.

Plan hori 4 urterako da eta hiru atalek osatzen dute: diagnosis, plan estrategikoa eta kudeaketa-plana. Dagoeneko lehen biak amaituta daude.

EBPNk ekimen instituzionala eta soziala uztartu eta lankidetzaz sustatzea eskatzen du, eta planaren jarraipena egiteko Udalak Euskararen Aholku Batzordea sortzen du, gizarte esparru garrantzitsuenetako andra-gizonen artean aukeratutakoekin eta Udalean ordezkariak duten alderdi politikoetako ordezkariekin osatuko dena.

### **Batzorderako araudia**

#### **➤ Izaera eta kokapena**

Organo aholku-emailea da, eta Eibarko Udalari atxikia Euskara eta Kultura batzorde aholkulariaren bitartez.

Organo aholku-emaile hau udalerrian hizkuntza-normalkuntzan diharduten talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien harreman-organoa izango da.

#### **➤ Egitekoak hauek izango dira:**

1. Udalari Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egokitzen laguntzea, hots, udalerriko plan estrategikoa egiteko aholkuak ematea, Udalbatzak ontzat eman aurretik.
2. Onarturiko plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa-planen jarraipena egitea.
3. Oro har, Udalak Euskara eta Kultura batzorde aholkulariaren eskariari jarraituz, udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea.

#### **➤ Partaideak**

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak partaide hauek izango ditu:

1. Lehendakaria: Eibarko Udaleko Alkatea
2. Lehendakari-ordea: Eibarko Udaleko Euskara eta Kultura batzordeburua
3. Euskara eta Kultura batzordekideak
4. Eibarko Udaleko euskara teknikaria
5. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko Udalak izendatutako solaskide teknikoa.
6. Udal euskaltegiaren arduraduna.

7. Gehienez 12 kide, udalerraren hizkuntza-normalkuntzan eragiten duen esparruetan esanguratsuak diren andra-gizonen artean aukeratutakoak. Ordezkariek izendatzeko orduan arreta berezia jarriko zaio belauneko belauneko euskararen jarraipena bermatzeko lanean diharduten elkarte-erakundeetakoak, euskararen erabilera bermatzeko auzogintzan eta zerbitzugintzan edota euskararen kalitatea elikatzen dihardutenentakoak izateari.

Eibarkoan, beraz, esparru hauek ordezkatzeko dira:

- Euskalgintza
- Irakaskuntza
- Merkataritza
- Enpresak
- Teknologia berriak
- Kulturgintza
- Kirola
- Erligioa
- Sindikatuak

Kide horiek Alkateak izendatuko ditu, urte birako. Nolanahi ere, horien kargualdia luzagarria izan daiteke.

Kide horietakoren bat ordezkatu beharrik izanez gero, Alkateak izendatuko du, aurrekoari geratzen zitzaion denboraldirako.

Egokitzat joz gero, Udalaren Euskara Aholku Batzordeak lantaldeak era ditzake plan estrategikoaren hiru helburu estrategikoei loturik, eta Euskara Aholku Batzordeko kide guztiak lantalderen bateko kide izango dira. Horrez gain, egoki iritziz gero, batzordez kanpoko adituren bat ekarri ahal izango da lantaldeetara, lan jakinen baterako. Lantalde horiek euskara zerbitzuaren laguntza teknikoa jasoko dute.

Euskara Aholku Batzordearen zein lantaldeen batzar deialdiak idazkariak egingo ditu, idatziz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun aurretik. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

Idazkaria Euskara Aholku Batzordeak aukeratuko du lehenengo bileran. Beraz, lehenengo bileraren deialdia Udalak egingo du.

## ➤ **Jarduteko modua**

### **1. Udalarekin harremanak**

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak Euskara eta Kultura batzorde aholkulariaren bitartez izango ditu Eibarko Udalarekin izan beharreko harreman guztiak.

### **2. Zerbitzu teknikoa**

Batzordearen funtzionamendu egokia bermatzeko, Eibarko Udaleko euskara zerbitzuaren laguntza teknikoa izango du.

### **3. Bileren aldikotasuna**

Udalaren Euskara Aholku Batzordeak urtean ohiko bi batzar izango ditu gutxienez, eta horiez gain Lehendakariak ohi kanpo dei ditzakeenak. Bilera-deiak idazkariak egingo ditu, idatziz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian

bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere. Ohi kanpoko deialdiak aipatutako ezaugarri berak izango ditu, eta bilera egin baino gutxienez lau egun aurretik egin beharko da deia.

Lantaldeek ere, hala badagokio, urtean bi batzar izango dituzte gutxienez.

Ebazpen edo erabakiak gehiago soiluz hartuko dira.

#### **4. Bilera-agiriak**

Udalaren Euskara Aholku Batzordearen idazkariak bileraren agiria egingo du Batzordearen –edota lantaldearen- hurrengo batzarrean onartzeko, hala badagokio. Agiria onartu ondoren, idazkariak izenpetu egingo du, Lehendakariaren oniritzia izanik. Agiriak Udaleko Euskara Zerbitzuan gordeko dira eta Aholku Batzordeko kideen esku izango dira.

